

# BESTELAKO XEDAPENAK

GOBERNANTZA PUBLIKO ETA AUTOGOBERNU SAILA

5293

*99/2022 EBAZPENA, azaroaren 28koa, Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako zuzendariarena, Bilboko Hegoaldeko trenbide-saihesbidea eraikitzeke egin beharreko zenbait lanetarako Red Ferroviaria Vasca-Euskal Trenbide Sareari egindako kudeaketa-gomendioa laugarren aldiz aldatzea onartzen duen Erabakia argitaratzea xedatzen duena.*

Gobernu Kontseiluak, uztailaren 26an egindako bilkuran, Bilboko Hegoaldeko trenbide-saihesbidea eraikitzeke egin beharreko zenbait lanetarako Red Ferroviaria-Euskal Trenbide Sareari egindako kudeaketa-gomendioa laugarren aldiz aldatzea onartzen duen Erabakia onartu zuen, eta behar bezalako publizitatea emateko, honako hau

EBAZTEN DUT:

Artikulu bakarra.– Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzea Bilboko Hegoaldeko trenbide-saihesbidea eraikitzeke egin beharreko zenbait lanetarako Red Ferroviaria Vasca-Euskal Trenbide Sareari egindako kudeaketa-gomendioa laugarren aldiz aldatzea onartzen duen Erabakiaren testua. Ebazpen honen eranskinean dago jasota.

Vitoria-Gasteiz, 2022ko azaroaren 28a.

Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako zuzendaria,  
JON IÑAKI URBINA GARCÍA DE VICUÑA.

ERANSKINA, AZAROAREN 28KO 99/2022 EBAZPENARENA, JAURLARITZAREN  
IDAZKARITZAKO ETA LEGEBILTZARRAREKIKO HARREMANETARAKO  
ZUZENDARIARENA

ERABAKIA, ZEINAREN BIDEZ BAIMENTZEN BAITA BILBOKO HEGOALDEKO  
TRENBIDE-SAIHESBIDEA ERAIKITZEKO EGIN BEHARREKO ZENBAIT LANETARAKO  
RED FERROVIARIA VASCA - EUSKAL TRENBIDE SAREARI EGINDAKO  
KUDEAKETA-GOMENDIOA LAUGARREN ALDIZ ALDATZEA.

Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazio sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen, eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituen Lehendakariaren irailaren 6ko 18/2020 Dekretuaren 11.1.g) artikulua Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailaren esku uzten ditu trenbideen gaineko egitekoak.

Estatuko Administrazio Orokorrari dagokio autonomia-erkidego bat baino gehiagoren lurraldeak hartzen dituzten interes orokorreko herri-lanen eta trenbideen eta lurreko garraioen gaineko eskumen eskusiboa, hala xedatzen baitute Espainiako Konstituzioaren 149.1.21 eta 149.1.24 artikuluek.

Euskal Autonomia Erkidegoak eskumen eskusiboa du erkidegoaren intereseko obra publikoen eta Euskal Autonomia Erkidegoa soilik hartzen duten trenbide eta garraioen gainean, bai eta Euskal Autonomia Erkidegoko jardura ekonomikoa sustatu, garatu eta plangintza egiteko eskumenak eta lurraldearen antolamendu eta hirigintzaren gainekoak ere, hala xedatzen baitu Autonomia Estatutuaren 10.25, 10.31, 10.32 eta 10.33 artikuluek.

2017ko maiatzaren 23an eginiko bileran, Gobernu Kontseiluak baimena eman zuen lankide-hitzarmen bat sinatzeko Sustapen Ministerioarekin, Ogasun eta Funtzio Publikoko Ministerioarekin eta Adif-Trenbide Azpiegituren Administrazioarekin, Bilboko hegoaldeko trenbide-saihesbidea eraikitzeke egin beharreko zenbait lan garatzeko baldintzak ezartzeko, eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrari honako lan hauek burutzeko kudeaketa-gomendioa egiteko: Bilboko hegoaldeko trenbide-saihesbideko obrak egikartzeko beharrezkoak diren informazio-azterlanen idazketarako, trenbide bikoitzarentzako plataforma eraikitzeke proiektuaren idazketarako, lanak kontratatzeke eta egikartzeko, desjabetze-espeditenteen kudeaketa administratiborako lankidetzarako eta obra-zuzendaritzarako eta bestelako ezein zerbitzutarako lanak. Hitzarmen hori 2017ko uztailaren 12an sinatu zen.

Hegoaldeko trenbide-saihesbidearekin lotuta agindu diren lan horiek bi fasetan banatu dira:

- Lehen fasea Serantesko tunelaren eta Olabeagaren arteko tarteari dagokio, hau da, gutxi gorabehera, 0+000 eta 12+200 KP artean dagoen tarteari.
- Bigarren fasea Barakaldo-Basauri tarteari dagokio, 9+750 eta 19+500 KP artekoari, gutxi gorabehera.

Sinatutako lankidetzaren hitzarmenean aurreikusitakoaren arabera, Sustapen Ministerioak eta Adifek Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren kargu utzi dituen lanak administrazio horrek zuzenean edo Red Ferroviaria Vasca - Euskal Trenbide Sarea (aurrerantzean, ETS) zuzenbide pribatuko ente publikoaren bitartez gauzatu ahal izango ditu. Maiatzaren 21eko 6/2004 Legeak sortutako erakundea da ETS, Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Sailari atxikita dago, eta horren xedea da Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren eskumenekoak diren trenbide-azpiegituren proiektuak egitea, azpiegiturak eraiki, kontserbatu eta mantentzea, eta haiek administratu eta kudeatzea, Euskal Administrazio Orokorraren organo eskudunak hala erabakitzen badu.

Kudeaketa-gomendioaren erabakian adierazitako baldintzen arabera, erabaki zen, interes publikoak modu eraginkorragoan lortzeko, egokia zela Red Ferroviaria Vasca-Euskal Trenbide Sareari ematea Bilboko hegoaldeko saihebidia eraikitzeke egin beharreko lanen enkargua, hori guztia Red Ferroviaria Vasca-Euskal Trenbide Sareari buruzko maiatzaren 21eko 6/2004 Legean ezarritakoa oinarri hartuta. Gomendio hori Eusko Jaurlaritzak onartu zuen 2017ko uztailaren 26an egindako bilkuran, eta, ondoren, aldatu egin zen Gobernu Kontseiluak 2018ko abenduaren 26an eta 2020ko apirilaren 14an egindako bilkuretan.

2017ko uztailaren 12an sinatutako hitzarmenak 4 urteko indarraldia ezartzen zuen. Hala ere, eta aipatutako hitzarmenean ezarritako baldintzetan lan egiten jarraitzeko eta, horrela, hitzarmenaren xede diren obrak gauzatzeko azterlanak eta proiektuak definitzen jarraitzeko, 2021eko uztailaren 8an luzapen- eta aldaketa-gehirri bat sinatu zen, eta hasierako hitzarmenaren indarraldia beste 4 urtez luzatzeaz gain, zenbait aldaketa egin ziren.

Hori guztia dela eta, hirugarren aldiz aldatu behar izan zen Red Ferroviaria Vasca-Euskal Trenbide Sareari egindako kudeaketa-gomendioa, zeina 2021eko irailaren 28an onartu baitzen. Gomendio horretan jasotako jardueretarako aurreikusitako kostua laurehun eta hirurogeita lau milioi zortziehun eta berrogeita sei mila bederatziehun eta hemeretzi euro eta lau zentimokoa (464.846.919,04 euro) zen, kontzeptu eta urteko ordainketa hauetan oinarrituta:

Kopuruak, eurotan (BEZa bame)

	2018	2019	2020	2021	2022	2023	2024	2025	GUZTIRA
<b>1. FASEA – Serantesko Tunela-Olabeaga</b>									
Informazio-azterlana aldatzea (*)	640.464,66	24.984,27	47.170,60	100.000,00					812.619,53
Eraikuntza-proiektua	0	0	60.601,64	3.935.000	3.170.000	48.000	47.000		7.260.601,64
Obrak					22.869.000	163.108.000	177.144.000	90.629.000	453.750.000,00
<b>2. FASEA – Barakaldo-Basauri</b>									
Informazio-azterlana	303.670,82	474.737,49	200.289,56	565.000,00	1480.000				3.023.697,87
HITZARMENA, GUZTIRA	944.135,48	499.721,76	308.061,80	4.600.000	27.519.000	163.156.000	177.191.000	90.629.000	464.846.919,04

(\*) EA Eren kargura

Bilboko hegoaldeko trenbide-saihebidia eraikitzeke informazio-azterlanen eta, batez ere, obren garapenean beharrezkoa da alde aurretik aurreikusitako urteko ordainketak laugarren aldiz aldatzea, adostutako aurrekontu-banaketa lanen exekuzio-mailara egokitzeke aurreikusitako hasierako kostu guztia aldatu gabe. Azaldutako guztia Red Ferroviaria Vasca-Euskal Trenbide Sarea ente publikoak egindako oharrei jarraituz erabaki da.

Ondorioz, Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburuak proposatuta, 2022ko uztailaren 26an egindako bilkuran, gaia eztabaidatu ondoren, Gobernu Kontseiluak erabaki hau hartu du:

## ERABAKIA

Lehenengoa.– Red Ferroviaria Vasca-Euskal Trenbide Sareari egindako gomendioko puntu hauek aldatzea: 4.– Aurrekariak, erreferentziazko agiriak eta planteamendu orokorra eta 7.– Lanen

balorazioa eta ordainketa, Bilboko hegoaldeko trenbide-saihesbidea eraikitzeko egin beharreko zenbait lan egiteko. Kudeaketa-gomendioa 2017ko uztailaren 26an onartu zen, eta 2018ko abenduaren 26an, 2020ko apirilaren 14an eta 2021eko irailaren 28an aldatu.

Bigarrena.– Erabaki horren eranskinean jasota datoz aipatutako kudeaketa-gomendioaren aldaketa egiteko baldintza zehatzak.

Hirugarrena.– Kudeaketa-gomendio hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzea.

## ERANSKINA

## 4.– AURREKARIAK, ERREFERENTZIAZKO AGIRIAK ETA PLANTEAMENDU OROKORRA.

2017ko uztailaren 12an, lankidetzeta-hitzarmena sinatu dute Sustapen Ministerioak, Ogasun eta Funtzio Publikoko Ministerioak, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak eta Adif-Trenbide Azpiegituren Administrazioak, Bilboko hegoaldeko trenbide-saihesbidea eraikitzeko.

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorra lankidetzan arituko da Estatuko Administrazio Orokorrarekin eta Adifekin, 1. faseko informazio-azterlanari eginiko alegazioei erantzuteko, eta, hala badagokio, horren aldaketa idazteko ardura hartuko du, bai eta 2. faseko informazio-azterlana idaztekoa ere: plataforma eraikitzeko proiektua idaztea, lanak kontratatu eta egikaritzea, desjabetze-espedienteen kudeaketa administratiborako lankidetzeta, obra-zuzendaritza eta bestelako zerbitzuak; horiek guztiak beharrezkoak dira Bilboko hegoaldeko trenbide-saihesbideko obren lehenengo fasea egikaritzeko.

Bilboko hegoaldeko trenbide-saihesbidea eraikitzeko lan horiei Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak ekingo die, honako fase hauetan:

– Lehen fasea Serantesko Tunelaren eta Olabeagaren arteko tarteari dagokio, hau da, gutxi gorabehera, 0+000 eta 12+200 KP artean dagoenari.

– Bigarren fasea Barakaldo-Basauri tarteari dagokio, 9+750 eta 19+500 KP artekoari, gutxi gorabehera.

Era berean, eta hitzarmenak aurreikusten duen moduan, Sustapen Ministerioak eta Adifek Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren kargu utzi dituzten lanak Administrazio horrek zuzenean edo Red Ferroviaria Vasca - Euskal Trenbide Sarea (aurrerantzean, ETS) zuzenbide pribatuko ente publikoaren bitartez gauzatu ahal izango ditu. 6/2004 Legeak, maiatzaren 21ekoak, sortutako erakundea da ETS, eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren eskumenekoak diren trenbide-azpiegituren proiektuak egin, haiek eraiki, kontserbatu eta mantendu, eta haien administrazioa eta kudeaketa gauzatu beharko ditu, Euskal Administrazio Orokorraren organo eskudunak hala erabakitzen badu.

Kudeaketa-gomendioan jasotako jarduera eta obra guztien gutxi gorabeherako kostua, lehen faseari zein bigarrenari dagokienez, 464,82 milioi eurokoa da (BEZa barne), ondoren jasotzen diren kontzeptuen eta urteko ordainketen arabera. 12/2002 Legeak, maiatzaren 23koak, Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Ituna onesten duenak, laugarren xedapen gehigarrian esaten duenari jarraikiz, Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazio Orokorrak kupoa gutxituko du 1. faseko obretarako gastuei dagozkien zenbatekoen ordainetan, baita 2017ko uztailaren 12ko hitzarmenaren ondorioz –zeina 2021eko uztailaren 8an aldatu eta luzatu baitzen– Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazio Orokorrak bai 1. fasean bai 2. fasean bere gain hartuko dituen zerbitzuen kostuen zenbatekoan ere, obra edo zerbitzuen kasuan kasuko ziurtagiriak aurkeztu ostean, 1. faseko informazio-azterlanaren aldaketari dagokion kostua izan ezik:

## 1. fasea (Serantesko Tunela-Olabeaga).

Eurotan

KONTZEPTUA	2020	2021	2022	2023	2024	2025	2026	GUZTIRA
Eraikuntza-proiektua idaztea	60.601,64	1.643.792,44	4726000	734.605,92	95.000			7.260.000
Plataformako obrak gauzatea, kontrol-zerbitzuak eta obrazuzendaritza bamean direla (OZko laguntza-zerbitzuak, kalitatea, segurtasuna eta osasuna, ingurumena).				1.965.000,00	107.359.000	168.257.000	176.169.000	453.750.000
GUZTIRA (BEZa BARNE)	60.601,64	1643.792,44	4.726.000	2.699.605,92	107.454.000	168.257.000	176.169.000	461.010.000

## 2. fasea (Barakaldo-Basauri).

Eurotan

KONTZEPTUA	2018	2019	2020	2021	2022	2023	GUZTIRA
Informazio-azterlana idaztea	303.670,82	474.737,49	200.289,56	257.144,28	1.000.000,00	784.157,85	3.020.000,00
GUZTIRA (BEZa BARNE)	303.670,82	474.737,49	200.289,56	257.144,28	1.000.000,00	784.157,85	3.020.000,00

Hitzarmenak zehazten duenaren arabera, administrazio orokorrak honako hauek hartuko ditu bere gain, bere finantza-baliabideen kargura:

Lehenengo faseko informazio-azterlanaren aldaketa: Serantesko tunela-Olabeaga. Informazio-azterlanaren aldaketa idazteko kostua 788.525,63 eurokoa dela kalkulatu da (BEZa barne).

## 7.– LANEN BALORAZIOA ETA ORDAINKETA.

Gomendioan emandako lanen balorazioa lauhun eta hirurogeita lau milioi zortziehun eta hemezortzi mila bostehun eta hogeita bost euro eta hirurogeita hiru zentimokoa (464.818.525,63 euro) da, kontzeptu hauetan oinarrituta:

Kopuruak, eurotan (BEZa bame)

INBERTSIOAK	2018-20	2021	2022	2023	2024	2025	2026	GUZTIRA
1. FASEA - Serantesko Tunela- Olabeaga								
Informazio- azterlana aldatzea (*)	712.619,53	25.906,10	50.000					788.525,63
Eraikuntza- proiektua	60.601,64	1.643.792,44	4.726.000	734.605,92	95.000,00			7.260.000,00
Obrak				1.965.000,00	107.359.000,00	168.257.000,00	176.169.000,00	453.750.000,00
2. FASEA - Barakaldo-Basauri								
Informazio- azterlana	978.697,87	257.144,28	1.000.000	784.157,85				3.020.000,00
HITZARMENA, GUZTIRA	1.751.919,04	1.926.842,82	5.776.000	3.483.763,77	107.454.000,00	168.257.000,00	176.169.000,00	464.818.525,63

(\*) EAEren kargura

Gomendioan emandako lanei lotutako konpromiso-kredituak, lehenengo faseko informazio-azterlana (Serantesko tunela-Olabeaga) aldatzeari buruzkoak izan ezik, Red Ferroviaria Vasca-Euskal Trenbide Sarearen aurrekontuetan daude. Aurrekontu horiek, ETS zuzenbide pribatuko ente publikoak denez, Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorretan sartzen dira, eta lege bidez onartzen dira aurrekontu-ekitaldi bakoitzerako.

Enkargu honen ondorioz egiten diren lanak hilero ordainduko dira, egindako lanak justifikatu ondoren betiere. Ordainketak ETSk Administrazioan faktura aurkeztu ostean egingo dira.